

## JUANTXO-TXIKIRENGAN ITXARON (19)

*Erein.* Erein azi ona. Erein azi ona etenik gabe. Aukeratu azirik onenak. Merezi ditu Juantxo-txikik. Baserritarra, azia erein ondoren, ez da bigaramonean joaten sorora azia erne ete dan ikustera.

Bein erein ezkeru, lasai gelditzen da, presarik gabe. Berak ba-daki bere garaian erne eta burutuko dala azia, gauzak okertzen ez ba'dira. 'Aundia banaiz, txikia banaiz, maiatzean burutuko naiz' diño esaera zaarrak gariari buruz.

Badaki ereinda bakarrik ez dirala lanak eta arazoak amaitzen; jorrek ondoren etorriko dira bere orduan.

*Aziaren ardura* izango dau baserritarrak, noiz erneko, baiña patxada onean, trankil, itxaron-bidetik eta eroapen aundiarekin. Gauza guztiak bear dabe euren denporea.

Itxaropena eta eroapena denporarekin batera: orra zer gauza ederrak. Eroapen aundiz itxaroten jakin. Denporea emon eta artu. Juantxo-txiki oso nekez azten dan azia dozu. Itxaron. Denborea emioizu. Bere biotzean erein dozuzan azi oneik, emon euren garaian emongo dabe frutua...

—Noiz, baiña...?

—Jainkoak daki: asieran, erdian, azkenean...

Ain berandu...?

—Garaiz litzake oraindiño. Tarsoko Saulo, Kartagoko Agustin, Loiolako Iñigo ez ziran irurak umearoan edo gartzaroan zuzendu, gizon adiñek oak zirala baiño eta donetasunera eldu ziran irurak: Paulo donea, Agustin donea eta Inazio donea, irukote bikaiña giza-kondairan.

*Lana egitea* da zure eginbearra, Juantxo-txikiren biotzean azi onenak ereiñez eta jorratuz, euria eta eguzkia emonez... Orreik zure eskuetan badagoz be, orreik frutua orixe bai ez dagoela zure aalmenean. Orren konturik ez dautzu iñortxok be eskatuko.

*Al dauna* bakarrik eskatu Juantxo-txikiri. Al dauana bakarrik egin-erazo eta bere aalmenaren neurrian irakatsi. Batekoa al da bere indarraren neurria? Bateko lana eman. Izango dau biar biko indarra eta orduan emongo dautsazu biko lana. Biarko lanak biarko indarrentzat izan bear dabe; baiña, biarko indarrari dagokion lanik ez emon gaur.

Itxaron, lana eskutik itzi gabe.

Eroapen eta pazientzi aundian, lana ez da sekula alperrikakoa izango, Jauna lagun.